

Nire amona

1. Irakurri:

Nire amona, Jesusa Isasti deitzen da eta 89 urte ditu. Azpeitian jaio egin zen baina azken urteetan Gasteizen bizi izan da. Gazteagoa zenean okindegian lan egiten zuen eta ogi eta pastel goxo asko egiten zituen egunero. Agian horrexegatik gustatzen zaizkio hainbeste jateko!



2. Orain galderak erantzun:

- Zenbat urte ditu Aitorren amonak?

- Non bizi da orain Aitorren amona?

- Non egin zuen lan?

- Zer egiten zituen okindegian?

- Zer gustatzen zaizkio jateko?

3. Idatzi zure aitonari edo amonari buruz nahi duzuna!
